

Euskaldunen Lizeoa

Euskeraren bidez, ikasketa nagusitaraño iritxi

Euskal gizon - emakumeak eta jakintsu euskaldunak nundik sortuko diran

Gure artean aspalditxo ontan edizten dan izen bat: LOISTARAIN. Gure aitona-amonak ere bazekiten izen oneko baserri bat nun zegoen eta baserri orrek berak eman dio berea orain euskal-zale talde bati. Gurasota irakasle talde bat danak euskal-zaleak, irakaskintzak gure izkuntzaren iraupen eta zabaldunderako duan garrantziaz eta surretara jo nairik LOSTARAIN izeneko Alkartea sortu zuten. Zertarako? Esan bezela, lenengo ta bigarren mailan ezekik, ikasketa nagusietan ere Euskera lantzeko. AInbeste eta aInbesteren arnasa bait da, izan ere, gure sur euskaldunel euskeraz al dan guziena erakustea!

Alkartu ondoren, lur sail ederra (33.000 metrokoa) erosi zuten Donostiko txoko menditsu eder batean. Antxon ikusten degu lur zati ori, Tolosako bir nagusi ertzean, «Renault» etxearen pare parean, mendil-magalean. Beeraxio egiten asiak dira bal Injeniero Industrialentzako Eskola eta bal Moja Teresianaren Kolejoa. Gooraxio, Mendi Zorrotz eta Arratzain mendiak begira dituala, gure tokia. Irakaskintzari Buruz garrantzi sundiko lokus.

ZERTARAKO?

500 neska-mutiltxok ikastola eta

1.500 neska-mutillek Bachiller'aldi osoa egin al izan dezaten, euskeraz. Oyen aldamenen beste eginkizun batzuek ere izango dute bere lekua (andereño-ikasleentzat bizil lekus eta abar).

Baño ikaskintza oiek bere bidea ez dute utsetik asita ibilli beariko. Orain bizil eta surretara dijotan «Santo Tomas Lizeoan» sortua da Loistarain Alkartea.

Ano ikasleak lendabiziko sei urteak ederki burutu dituztela ikustean, azitzea bear bearrezkoa agertu zan eta ala, orain Lizeoan dabil-tzen 150 lenengo mailako ikasle eta bigarren mailan ari diran 120 ikasleak, argi agertzen dute orain bear diranak peretak, alkaki, itz batean, lan tokiak dirala, Jaunari eskerrak ez dira ikasleak uts egingo dutenak eta.

ETA DIRU KONTUZ?

Dana ordaintzeko, eun bat milloil pezia beariko dira. Ikasle ugartasunak erabakiko du noiz arteko espea ekarriko dun diru pilla orrek, baño amar urteko espeakin naikoa izango dala dirudi. Orain arte amar milloil pezia orainduak dira. Lur-ordainketa bukatzeko oraindik bi milloil ta er-

di bear dira. Orain, Elkartearen oinarriak jarri eta lurak bereganatu ondoren, bigarren sailoari asiera eman bear zailo: Zazpi milloik... tua. Ala, len ere dirua eman duten azloartzaleak bai beriz eman nai ta dute eta bai diru-ebale berriak lortu nai ba dituzte, argi ibilli bear, jakina, danen artean, abiatutako bidean jo-mugara iritxi dediñ aginkizun eder au.

DATORREN IKASTARORAKO ASMOAK

Aurtengo urrikan asiko dan ikastorako asmo bat artu dute: Milloil baten bidez, etxe «prefabrikatukoak» jarri eta Loistarain'go lurrean izatea ikastaldeak. Ala, orain Amera aldian dabilzan ikasleak leku berria aldatuko dira eta gure seme-alabak asiko dira gero bit ederra izango dan bere «Lizeoari» pul-tsu artzan.

Eta amendik urte t'erdia, au da, 1969-70'garrengo ikastaroa erabat aai nai dute jakite askotariko ikastetxe orren len-egialdian.

Asmoak, beraz, aundiak dira eta ala euskal erriak bere-bere egiba dauke Loistarain, Alkartearen elburua: euskera ikaskintzan sartzea, alegia.

300 bat diru jartzalle dira, ordinar arte asmo eder au berea egin dutenak. Beste asko ere alkartuko dira

eta danon artean lortuko degu Euskal-erri obeago bat. Ala bedi.
M. J. A.

EUSKAL-ERRIKO EMAKUME IDAZLARIAK

"TENE"

—Zer dezu izena?
—Tene- Mujika.
—Urteak?
—Larogel bete berriak.
—Nun jalo zifian?
—Deba'n; Deba'n asi; Deba'n bizil.
—Gaurko euskaltzale berriak aurrekoekin artu emanik gutxi izan oi dituzte... Utsune luzea izan bal degu erdian... Euskaltzale berri auzentzat jakingarrila dala ta, utziko al didazu beste galde-
ra batzuek egiten oraindik?
—Bai, bai egin nai dituzun guztiek.

—Argiak gabonetan aterarako Egutegi batean ikusi nuan lendabiz zure argazkia. Gerra aurretik zan. Argazki-aren azpian zure izena: «Tene».

Baño ordurako zu errebita ta asterokoetan ezaguna zifian. Zure lanak ugari ta xarmankiak ziran.

Zer gai erabiltzen zifisten gelen bat?
—Emakumeari buruz izaten ziran nere idaztlak.
—Noiz izan zenduan lendabiziko saria?
—1928-an «Euskal-Bazkuna»-ren saria izan nuan. Umlentzako iru ipuin saritu zizkiten. Baño aurretik ere, 1923-an, «Idazkiak eta Olerkiak» izeneko liburu argira-tu nuan. Watson Lizkonnell idazleak «Udazko ale» nere



liburuko poesia ingelese-ra bihurtuta «European Elegies»-bere liburuan argitaratu zuan. (Ottawa, 1928).

—Ipuiak eta poesia. Baño antzerki gaietan ere trebea zifian. Esango al zidazke ze beste sari irabazi dituzun?

—1934-an bi sari izan ni-tuan; bata —«Antzerki»-saria, «Gogo-ohazeak» izena zuan antzerkiarekin. Kur-saal Donosti-ko teatroan ikusi genduan lendabiziko aldir. Bi-garren zaria «Gabon» zerit-zon umlentzako egin nuan antzerkiarekin.

1936-ko garagarrikan Oñati-ko Congreso Mariano Diocesano-an saria irabazi zuan nere antzerki «Juan Jose»-k.

—Saritutako lanak oiek dira, baño oietzat gañera egin-go zifuzten beste batzuek ere?

—Bai, beste lanik asko ere eginni ditut. Nere aizke-neko saria oraintzungoa: 1964-garren urtean irabazi-la. Erderaz. «Narración sobre la Vida Rural Vascongada» izeneko lanekin irabazi nuan. «D. Domingo Agirre»-ren omenaldian irabazi ere.

Deba-ko erriak omenalditxo bat egin dio Tene euskal-idaz-le trebe ari.


Ondo merezitako omenaldia.

Omenaldirik onena, Tene-ren lan guztien bilduma argitaratzea izango litzakela uste det.

—Aizkeneko galdera, Tene: Zeln da zure aizkeneko lana?

—Ikastoletan bere semeak dituzten amentzako lagun-tza bat: Euskal aditza kuader-no batzuetan. Oso errea. Le-nengoko kuaderna atera da.

ARRANKASI



Marrazki ontan ikusten degu zer tokietan izango dan euskal Lizeoa. Arrasto borobil'len erdian dagon txoko ori da.